



2011KO APIRILAREN 13KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako apirilaren hamahiruan, arratsaldeko sei terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barre-ras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkezten da 2011ko martxoaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI MILA ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (197.032,08 €, -)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- HIRIBARREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZE LANEN LEHEN OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen lehen obra-egiaztagiria luzatu dute. Obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMBOST EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (29.635,62 €) da eta obra burutzen ari den enpresa Sasoi Eraikuntzak, s.l..

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen lehen obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:



Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-001 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2011ko apirilaren 8tik, hobekuntzagaratik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 615 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 505 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.

- 175 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.

- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 91,16€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 451 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.

- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 74,00€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.

- 198 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.

- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.

- 490 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.

- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 74,00€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %84 da.

- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 573 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 18,95€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.

- 692 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 74,00€ ematea eta alokairurako 200,00€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.



- 670 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 69,78€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 564 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 74,00€ ematea eta aurretiko zorpetze gastuetarako 139,24€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.
- 09-01-004 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.
- 09-1-007 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 74,00€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.
- 09-1-008 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-016 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako dirulaguntza ukatzea, ekonomi baliabideen baldintza ez betetzeagatik.
- 09-01-017 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 74,00 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.
- 09-01-019 zbk.dun esped.: Alokairu gastuak ordaintzeko hilean 32,00 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %10 da.

Telealarma.-

- 11-12-005 zbk.dunn esped.: Telealarma zerbitzuan alta ematea eta telealarmaren instalaziorako 20,44 € eta mantenimendu gastuetarako urtean 21,78 € ematea. Ematen zaion dirulaguntza telealarma kostuaren %75 da.
- 11-12-006 zbk.dunn esped.: Telealarman alta ematea. Telealarmaren instalazio kostua 81,79 €koa da eta mantenimendu gastua urtean 87,14 €, eta erabiltzaileak jarriko du kostuaren %100.

V.- SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARAUA.-

Jarraian San prudentzio jaietako egitaraua eta bere aurrekontua aurkezten dira Tokiko Gobernu Batzarrera, bere onarpenerako.

Aurtengo San Prudentzio jaiak apirilaren 26an hasi eta maiatzaren 1 arte izango dira Lazkaon eta maiatzaren 7 eta 8an Lazkaomendin.

Jaien aurrekontua, guztira, EHUN ETA BEDERATZI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EUROKOA (109.196 €) da.

Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, San Prudentzio jaien egitaraua eta aurrekontua, bere espedientean aurkitzen direnak, onartu egiten ditu.



VI.- SAN PRUDENTZIO JAIETAN TXOZNAK .-

Jarraian festetan irekitzen diren taberna eta txoznen gaia aztertu eta eztabaidatzen du Tokiko Gobernu Batzarrak.

Eskariak aztertzeko garaian aurreko urteetako erizpideak jarraitzea ikusten du ego-ki eta ondorioz, lokaletan jarritako baimendutako tabernen kopurua gehienera ere 2 iza-
tea eta txoznen kopurua, berriz, 4.

Orain arte eskari bakar bat egon da, Idoia Agirrezabala Navarro A.k Lazkaoko Ez-ker Abertzalearen izenean Areso 2ko behetan taberna jartzeko egindakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aurreko urteetako erizpideak eta eskaera hau aztertu ondoren, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- Taberna jartzeko baimen bat ematea egon den eskatzaile bakar honi: Idoia Agirrezabala Navarro, N.A. zbkia.: 72.478.905-V, Lazkaoko Ezker Abertzalearen izenean.

2.- Aurretik adierazi den erizpidea jarraituz, eskari gehiago balego, gehienez ere lau txozna arte eta bi taberna arteko baimenak ematea. Baimen hauek alkatetzaren ebaz-
pen bidez emango lirateke.

3.- Txoznak eta tabernak jartzeko ematen zaizkien baimenei jarraian adierazten di-
ren baldintzak ezartzen zaizkie:

- Txoznak jartzeko kokalekua Udaletxe atzea izango da.
- Txozna eta taberna bakoitzak 159 € euro ordaindu beharko du, hau da, iazkoa KPIren aldaketaren igoerarekin.
- Txozna eta taberna hauen jarduera apirilaren 26tik maiatzaren 1era mugatuko da soil soilik.
- 18 urtez beherakoentzat alkohol salmenta debekatuta dagoela adierazten duen kartelak jarri beharko dira ikus daitezkeen tokietan.
- Txoznak kentzeko azken eguna maiatzaren 2a izango da.
- Tasa ordainketa maiatzaren 31a baino lehen egin beharko da, Udalak herriko ban-
ketxetan horretarako dituen edozein kontu korrontetan.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak herrian pediatria zerbitzuarekin dagoen arazoaren berri ematen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen du-
dalarik.

